

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak, Parlamentuak eta eragile ekonomiko nahiz sozialek osatuko dute iruzur fiskalaren eta ezkutuko ekonomiaren aurka borrokatzeko batzordea

Foru Gobernuak gaurko bileran onartu du kontrol iraunkorreko organo berri bat sortzea, eta bertako kideak izendatu ditu

Asteazkena, 2016.eko maiatzak 11

Nafarroako Gobernuak gaurko bileran erabaki du iruzur fiskalaren eta ezkutuko ekonomiaren aurka borrokatzeko batzordea sortzea; batzorde hori Foru Administrazioak, Parlamentuak, sindikatuek eta Foru Komunitateko erakunde sozioekonomikoek osatuko dute. Organo iraunkor berri horren helburu nagusia iruzurra egiten dutenen aurka prestatutako neurriak betetzea da.



Ogasunak zergadunari arreta emateko duen bulegoa.

Gobernuaren aburuz, iruzur fiskalaren eta ezkutuko ekonomiaren aurkako borroka Gobernuaren nahiz Foru Komunitateko gainerako erakundeen helburu nagusietako bat da, orokortasun, berdintasun eta justiziako zerga-printzipioak betetzeko asmoz.

Batzordea sortu da apirilaren 17ko 14/2013 Foru Legearen, iruzur fiskalaren aurkako neurri buruzkoaren, lege-eskakizunaren ondorioz; bertan adierazten zen lan-batzorde iraunkor bat sortzea eta iruzurraren zein ezkutuko ekonomiaren aurkako borroka ebaluatzea.

Batzordea sortzeko erabakiaz gain, Gobernuak bertako kideak izendatzeko beste bat onartu du gaur. Organo berria 24 pertsonak osatzen dute, honako era honetan banatuta: Nafarroako Gobernuko 5 ordezkari, Foru Parlamentuko 7 (Geroa Bai, EH Bildu, Podemos, I-E, UPN, PSN eta PP) sindikatueta 4 (UGT, CCOO, ELA eta LAB), eta erakunde sozioekonomikoetako 7 ordezkari (CEN, Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioa, Nafarroako Lan Enpresen Elkarte, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñeko Abokatuen Elkargoa, Espainiako Zerga Aholkularien Elkarte, eta Nafarroako ATTAC elkarte, justizia ekonomiko orokorra bilatzen duen mugimendu independente bat).

Batzordea datozen asteotan eratuko da, eta haren lehen eginkizuna

2016-19 iruzur fiskalaren aurka borrokatzeko planaren zirriborroa ezagutzea izango da, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak jadanik egin duena.

Iaz, iruzurraren aurka borrokatzeko lanari esker, 75,2 milioi euro bildu ziren foruko diru-kutxan.

24 kide

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilari Mikel Aranburu izango da batzordeburua. Foru Administrazioak ere ordezkariak izango ditu Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaile Luis Esainekin; Zergak Kudeatzeko Zerbitzuko zuzendari Oscar Martínez de Bujandarekin; Araudia Garatzeko eta Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuko zuzendari Javier Zabaletarekin eta Berrindustrializazio, Lehiakortasun eta Proiektu Estrategikoen Zerbitzuko zuzendari Jose Felix Garcia Tinocorekin.

Talde parlamentario guztietako ordezkariak ere izango ditu, zehazki: Unión del Pueblo Navarroko Juan Luis Sanchez de Muniain; Geroa Baiko Jokin Castiella Imaz; Nafarroako EH Bilduko Adolfo Araiz Flamarique; Podemos-Ahal Duguko Maria Fátima Andreo Vázquez; Nafarroako Alderdi Sozialistako Ainhoa Unzu Gárate; Nafarroako Alderdi Popularreko Ana Beltrán Villalba; eta Izquierda-Ezkerrako María Jesús González de San Román.

Ordezkaritza handieneko lau sindikatuak ere izango dira, honako hauek: Comisiones Obrerasko David Escobosa Jiménez; Eusko Langile Alkartasuneko Iñaki Zabaleta Aramendia; Langile Abertzale Batzordeko Imanol Karrera Turrillo eta Unión General de Trabajadoresko Jesús Santos Pérez

Azkenik, beste erakunde sozioekonomiko batzuetako ordezkari titularrak izango dira: Nafarroako Enpresarien Konfederazioko Carlos Fernández Valdivieso; Nafarroako Lan Enpresen Elkarteko Javier Remírez Marrodán; Iruñeko Abokatuen Elkargoko Celso Galar Baranguá; Espainiako Zerga Aholkularien Elkarteko M^a Teresa Azcona San Julián; ATTAC elkarteko Josu Pardo Gurpegui; Nafarroako Udallerri eta Kontzejuen Federazioko Pablo Azcona Molinet eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko Hugo Lopez Lopez.

Batzordeko idazkaria, hitzarekin baina botorik gabe, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusiko Administrazioko Araubidearen Atalburua izango da. Kide guztiak Nafarroako Gobernuak izendatuko ditu lau urteko mandatu baterako.

Hiru hilean behingo ohiko bilkura

Batzordea derrigorrez eta ohiko bilkuran hiru hilean behin elkartuko da, eta modu berezian batzordeburuak hala deitzen duenean. Edozein unetan pertsona jakin batzuen aholkularitza eskatu ahalko du, egokiak iruditzen zaizkionak beren ezagutza, prestakuntza, ospe eta beste egoera batzuentatik.

Gaurko bileran onartutako arauak diotenez, batzordearen eginkizunak dira: Foru Gobernuak berak iruzurraren eta ezkutuko ekonomiaren aurkako borroka-arloan egindako jarduerak aztertzea; borroka horren jarduteko plan nahiz programen berri izatea; plan eta neurrien jarraipena egitea, eta bere eskumeneko arloan lotesleak ez diren proposamenak egitea.